

IKASTETXEA	Larraitzar DBHI		
IZENBURUA	NOLA ERABILI KALKULAGAILUA...	MAILA	DBH2
IRAKASLEA	Gonzalo Elcano	IKASGAIA	Matematika


DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

2. ATAZA


TESTUA

NOLA ERABILI KALKULAGAILUA FRAKZIOEKIN ERAGIKETAK EGITEKO

NOLA SARTU FRAKZIO BAT: $\boxed{a\ b/c}$ TEKLA


 Frakzioak sartzeko $\boxed{a\ b/c}$ tekla erabiltzen da. **1** $\boxed{a\ b/c}$ **2** tekleteuz gero, hauxe agertuko zaigu pantailan:

$$1 \boxed{2}$$

 Sinplifikatu ahal den frakzio bat sartu badugu, $\boxed{=}$ teklarekin laburtu ahal dugu. Adibidez, $\frac{4}{6}$ sartuko dugu kalkulagailuan. **4** $\boxed{a\ b/c}$ **6** idatzi eta gero $\boxed{=}$ tekla sakatzen badugu, hauxe agertuko zaigu pantailan:

$$2 \boxed{3}$$

Hau da, $\frac{4}{6} = \frac{2}{3}$

 Zenbakitzailea izendatzailea baino handiagoa denean, $\boxed{=}$ teklak ere badu funtzio berezia. Adibidez, $\frac{3}{2}$ sartuko dugu kalkulagailuan. **3** $\boxed{a\ b/c}$ **2** eta $\boxed{=}$ tekla sakatuz gero, hau agertuko zaigu pantailan:


$$1 \boxed{1} \boxed{2}$$

Hau da, $\frac{3}{2} = 1 + \frac{1}{2}$. Lehendabiziko zenbakia frakzioaren zati osoa da.

Beste adibide bat: $\frac{32}{5}$ sartuko dugu kalkulagailuan. **32** $\boxed{a\ b/c}$ **5** eta $\boxed{=}$ tekla sakatuz gero, hau agertuko zaigu pantailan:

$$6 \boxed{2} \boxed{5}$$

Izan ere, $\frac{32}{5} = 6 + \frac{2}{5}$

 **SHIFT** tekla (kalkulagailu batzuetan **Inv** edo **2ndF**) eta $\boxed{a\ b/c}$ tekla sakatzen baditugu ordena horretan, pantailan dagoen frakzioa $\frac{\text{zenbakitzailea}}{\text{izendatzailea}}$ eran agertuko zaigu. Adibidez, pantailan hauxe badugu:

$$1 \boxed{1} \boxed{2}$$

eta **SHIFT** $\boxed{a\ b/c}$ teklak sakatzen baditugu, pantailan **3** $\boxed{2}$ agertuko zaigu. Izan ere, $1 + \frac{1}{2} = \frac{3}{2}$

ZATIKIZKO KALKULUAK: ZENBAIT ADIBIDE

 $\frac{1}{2} + \frac{1}{6}$ kalkulagailuarekin egiteko, hauxe tekleatu behar dugu:

$$1 \boxed{a/b/c} 2 + 1 \boxed{a/b/c} 6 =$$

Pantailan emaitza sinplifikatua agertuko zaigu:

$$2 \frac{1}{3}$$

 $3 - \frac{5}{6}$ kalkulagailuarekin egiteko, hauxe tekleatu behar dugu:

$$3 - 5 \boxed{a/b/c} 6 =$$

Pantailan emaitza sinplifikatua agertuko zaigu:

$$2 \frac{1}{6}$$

Hau da: $2 + \frac{1}{6}$. $\frac{\text{zenbakitzailea}}{\text{izendatzailea}}$ eran jartzeko, **SHIFT** $\boxed{a/b/c}$ teklak sakatu behar

ditugu. Hori eginez, pantailan $13 \frac{1}{6}$ agertuko zaigu. Izan ere, $2 + \frac{1}{6} = \frac{13}{6}$

 $\frac{3}{2} : \frac{3}{5}$ kalkulagailuarekin egiteko, hauxe tekleatu behar dugu:

$$3 \boxed{a/b/c} 2 \div 3 \boxed{a/b/c} 5 =$$

Pantailan emaitza sinplifikatua agertuko zaigu:

$$2 \frac{1}{2}$$

Hau da: $2 + \frac{1}{2}$. $\frac{\text{zenbakitzailea}}{\text{izendatzailea}}$ eran jartzeko, **SHIFT** $\boxed{a/b/c}$ teklak sakatu behar

ditugu. Hori eginez, pantailan $5 \frac{1}{2}$ agertuko zaigu. Izan ere, $\frac{3}{2} : \frac{3}{5} = \frac{15}{6} = \frac{5}{2} = 2 + \frac{1}{2}$

JATORRIA	
EGILEA	Gonzalo Elcano
IZENBURUA	NOLA ERABILI KALKULAGAILUA FRAKZIOEKIN ERAGIKETAK EGITEKO
ARGITALETXEA/Webgunea	http://www.casio-europe.com/es/ web orrian oinarrিতා
URTEA	2009
ORRIALDEA (K)	-
ISBN	-
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimatua
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Instrukziozkoa
ERABILERA	Hezkuntzako

JARDUERAK	
1. INFORMAZIOA BILATU EDO BERRESKURATU	
1.1 Galdera	
Kalkulagailuan, zeintzuk dira sakatu beharreko tekla $\frac{4}{7}$ frakzioa sartzeko?	
1.1 Erantzuna	
4 $\frac{a}{b/c}$ 7	
1.1 OHARRAK	
Aukera bakarra dago. Puntu 1	
1.2 Galdera	
$\frac{a}{b/c}$ tekla erabiltzeaz gain, zein erabiltzen da frakzio bat $\frac{\text{zenbakitzailea}}{\text{izendatzailea}}$ eran jartzeko?	
1.2 Erantzuna	
SHIFT tekla	
1.2 OHARRAK	
Erantzun bakarra. Puntu 1	
2. ULERMEN OROKORRA	
2.1 Galdera	
Testuan bi atal nagusi daude. Zeintzuk dira?	
2.1 Erantzuna	
Nola sartu frakzio bat: $\frac{a}{b/c}$ tekla	
Zatikizko kalkuluak: zenbait adibide	
2.1 OHARRAK	
Galderan bi zati daudela adierazten da, beraz, ez dago beste interpretaziorik. Puntu 1	
2.2 Galdera	
Jarri frakzioak kalkulagailuan erabiltzeko dauden hiru tekla garrantzitsuak.	
2.2 Erantzuna	
$\frac{a}{b/c}$, = eta SHIFT	
2.2 OHARRAK	

Hiruak jarriz gero, ongi. Puntu 1
3. INTERPRETAZIOA- INFERENTZIAK
3.1 Galdera
Zure kalkulagailuak ez badu SHIFT tekларик, nola egin dezakegu frakzio hau? $1 + \frac{1}{2} = \frac{3}{2}$
3.1 Erantzuna
Inv edo 2ndF) eta $\frac{a}{b/c}$ tekla sakatzen.
3.1 OHARRAK
Puntu 1
3.2 Galdera
Pantailan $2 \downarrow 1 \downarrow 2$ agertzen da. Aukeratu erantzun egokia: a) Lehenengo \downarrow ikurrak eta bigarrenak "frakzio" adierazten dute. b) Lehenengo \downarrow ikurrak "batuketa" adierazten du eta bigarrenak "frakzio". c) Lehenengo \downarrow ikurrak eta bigarrenak "batuketa" adierazten dute. d) Lehenengo \downarrow ikurrak "frakzio" adierazten du eta bigarrenak "batuketa".
3.2 Erantzuna
b) da zuzena
3.2 OHARRAK
Erantzun zuzen bakarra dago. Puntu 1
4. EDUKIAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA BALORAZIOA
4.1 Galdera
Testuan aplikatzeko adibide asko agertzen dira. Zein da, zure ustez, adibide horien helburua?
4.1 Erantzuna
Aipatu beharrekoa: azalpenak argitzeko edo kalkulagailu batekin praktikak egiteko.
4.1 OHARRAK
Puntu 1

4.2 Galdera

Ezkerrean, teklak sartzeko ordena dago eta eskuinean pantailan agertuko dena. Bikoteka jarri:

6	$\frac{a}{b/c}$	8	a
6	$\frac{a}{b/c}$	8 =	b
8	$\frac{a}{b/c}$	6	c
8	$\frac{a}{b/c}$	6 =	d

1	1 ↵ 1 ↵ 3
2	8 ↵ 6
3	3 ↵ 4
4	6 ↵ 8

4.2 Erantzuna

a-4 b-3 c-2 d-1

4.2 OHARRAK

Erantzun zuzen bakarra dago. **Puntu 1**

5. FORMAREN GAINEKO HAUSNARKETA EDOTA EBALUAZIOA

5.1 Galdera

Aditz gehienak (dugu, zaigu, ditugu...) pluraleko lehen pertsonan daude. Zure ustez, zein da aditzak modu honetan erabiltzeko arrazoa?

5.1 Erantzuna

Testua irakurlearengana hurbiltzea edota testua "aktiboago" egitea.

5.1 OHARRAK

Puntu 1

5.2 Galdera

Testuan hainbat hitz errepikatzen dira behin eta berriro. Lotu hitzak eta testuan zertarako erabiltzen diren.

sakatu behar	a
agertuko zaigu	b
hau da	c
izan ere	d

1	Pantailan dagoena interpretatzeko
2	Emaitza egiaztatzeko
3	Zer egin behar den azaltzeko
4	Egindakoaren ondorioa azaltzeko

5.2 Erantzuna

a-3 b-4 c-1 d-2

5.2 OHARRAK

Ongi jarriz gero, **Puntu 1**

5.3 Galdera

Zein da, zure ustez, bi letra-tamaina desberdin erabiltzearen helburua?

5.3 Erantzuna

Kalkulagailuari dagokiona eta testu arrunta desberdintzea.

5.3 OHARRAK

Puntu 1